



PROIEKTUAREN FITXA

Izenburua - Título

BELDURRA

Egilea - Autor

AINHOA AIERBE/TESSA ANDONEGI

Generoa - Género

DRAMA

Tagline

Target - Merkatu objektiboa

PUBLIKO HELDUA

Proiektua nork zuzenduko lukeen - Posible director del proyecto

AINHOA AIERBE/TESSA ANDONEGI

Aktore nagusiak, nortzuk - Posibles protagonistas

Egilearen CV laburra - Breve CV del autor

AINHOA AIERBE ETA TESSA ANDONEGI ESPERIENTZIA LUZEKO AKTORE
ETA ZUZENDARIAK DIRA, BAI ANTZERKIAN ZEIN TELEBISTAN.
GIDOILARITZARA SALTOA EMAN DUTE PROIEKTU HONEKIN.

MEMORIA

LAGUNTZA OIHU BAT LEIZEAREN SAKONETATIK

Hori da proiektu honetan murgiltzen hasi ginenetik etengabe entzuten duguna.

2016.ko urrian Asier Izagirrek Legarreako siman (Gaztelu, Nafarroa) Aranzadirekin burutzen ari zen lana ikustera gonbidatu gintuenean, medioetan agertutakoa besterik ez genuen ezagutzen, alegia, 1936an desagertutako emakume baten eta bere sei seme-alaben gorpuzkien bila zebiltzatela. Horren ondoren, Aranzadiren egoitzan ikusi genituen Juana Josefa eta bere seme-alaben hezurak, familiarekin batera.

Ulertu genuen orduan, hain modu pribilejiatuan bizitu genuen aurkikuntzaren atzean kontatu behar genuen istorio bat zegoela, iragana, ulertu ezean, behin eta berriro itzultzen den zer bait dela jabetuz.

Gure informazio iturri nagusia Jose Mari Esparzak idatzitako “La Sima” liburua izan da, herritar eta familiakoen testigantza zuzenaz gain. Gure istoriarekiko hurbiltasunak erraztu digu lana. Esparzak defendatzen du, eta gu ere ondorio horretara iritsi gara, ez dagoela arrazoi politiko ez eta ekonomikorik ere krimen krudel honen atzean. Juana Josefa eta bere familiaren hilketa krimen pertsonala eta nolabait pasionala dela. Pulsio ezkutu, gorroto, inbidia, desio eta ezinikusiak pasio diren heinean.

Gure ustez, hainbat elementuk eman zioten bidea gertakari honi; hasteko, gerra zibilaren hastapenetan jazo zen. Imajina ditzakegu izango ziren eromen eta nahastea, errezero, mesfidantza eta susmoak. Eta imajina dezakegu BELDURRA. Orduko botere faktikoek, elizak bereziki, gaur egungoek bezalaxe, ondo zekiten beldurraren bitartez biztanlegoa kontrola zezaketeela. Biztanlego analfabetoa, hein handi batean. Izpiritua elikatzea arriskutsua denaren jakitun.

Bi kontakizun paralelo planteatu ditugu gidoi honetan. Alde batetik, Juana Josefa Sagardiaren ibilbidea, 1936an, eta bestetik, gaur egungo emakume baten, Mairen, bizitza. Lanagatik iraganeko gertakari hau ikertu beharko du eta azkenerako konturatuko da zenbateraino, Juana Josefari jazotakoak eragingo dion bere bizitzari. Zenbateraino, emakume baten sufrimenduak argitu dezakeen beste emakume baten bidea, bere bizitza propioaren korapiloa askatzen lagunduz.

Ainhoa Aierbe eta Tessa Andonegi.

SINOPSISIA

Mai, 32 urteko emakumea, Donostiako Auzitegiko medikua da. Ikasketa luzeak burutu ondoren, behin betiko lanpostua lortu du. Sentimentalki bere irakasle ohiarekin dago kateatuta. Azken hau ezkontuta dago, eta horrek Mai sufriarazten du, baina ezin du utzi. Lanagatik, Nafarroako leizezulo batetara joatea egokituko zaio, eta, bertan, txikitan, aita Iruñeko artxibategiko langilea zeneko kasu batekin topatuko da, Juana Josefa Goñi eta bere sei seme-alabak 1936an desagertu zirenekoa, oso baldintza arraroetan. Ikertu beste erremediorik ez du izango. Bere ikerketek Juana eta seme-alabak leizezuloan jaurtiak izan zirela sinestera eramango dute eta gorpuzkien bilaketari ekingo dio. Aurkikuntza honek bere bizitzan erabateko aldaketa suposatuko du.